



## Errateko nituenak

### Pello Salaburu

Ez da nobela, ezta literatura ere (zentzu zorrotz batean esanda). Eta hori zen, hain zuzen, liburu honetan bilatzen nuena eta batez ere liburu honetatik espero nuena, komunikabideetan hartaz irakurrita eta entzunda neuzkan iruzkinak eta egile honen ibilbide pertsonal eta profesionala kontuan hartuta.

Egia da liburuan badaudela alderdi batzuk fikziozkoagoak beste batzuk baino, eta egileak berak ohartarazten du: benetan jazotako gertaera batzuk narratzeko –eta ulertzeko– idatzitako liburua dela, nahiz eta fikziozko alderdi batzuk ere badituen, nahita zein oharkabean gehituak, zeren, azken finean, eta Calderón de la Barca-k zioen moduan: “Bizitza ametsa da”.

Euskara oso deigarria darabil, batez ere liburuko aurreneko ataletan. Euskara batua eta Baztango euskara era natural eta atsegin batez nahasturik daude, elkarren osagarri izanik (gutxiago ezin genezakeen espero euskararen garapenarekin eta euskara batuarekin horren engaiaturik dagoen norbaitengandik). Euskalkiari dagozkion hitz batzuen esangura testuinguruak berak argitzen dizu, horren esanahia hiztegian kontsultatzea beharrezkoa ez delarik; aitzitik, jitez-edo asmatzen duzu zer den. Bestalde, badaude beste hitz batzuk, agian, Baztango euskalkiaren hiztegitxo baten laguntzaz hobeto harrapatuko liratekeenak, mota horretako terminologia oso ugaria ez bada ere; hortaz, irakurketa ez da astuna bilakatzen, alferrikako hitz ezezagunez josita ez dagoenez. Idazkeraren estilo literarioa nabarmena da, are nabarmenagoa liburuko zenbait ataletan beste atal batzuetan baino –prozesu natural, landu eta ikasi baten emaitza.

Antropologiaren ikuspuntutik ere liburuak badu halako balio berezi bat, Baztango herri txiki-txiki biziaren eta egunerokoaren hainbat eta hainbat alderdi narratzen dituelako, eta hori da gauza bat beti “exotiko” edo “pintoresko” samarra gertatzen zaiguna, ingurune erabat urbanoetan –eta beraz, horren erakargarri gertatu ohi zaigun kultura lokalistatik urrun– haziak garen euskaldunontzat (kaletar petoentzat). Gainera, beti egoten da halako “bekaitz”-hondar bat beste batzuek esperimentatu ahal izan dutenaz, ingurune erabat bestelakoetan.

Oroitzapen-, gogoeta-, deskribapen- eta narrazio-liburua da, egileak bere tesi eta jarrera politikoak berresteko ere erabiltzen duena. Askotan baliatzen da ironiaz, baina modu leun batez, kritikagarritzat jotzen duena “birrintzeko” asmoz ez –Perun gertatzen zaizkion egoera nahiko surrealistikak, kasu–, baizik eta era jator batez, neurri batean ulerberatasuna erakutsiz (azken finean handia da egin duen saltoa beste kultura baten, beste kontinente baten eta beste kultur garapen baten atzean). Han-hemen barreiatu, etengabe, umorezko pintzelkada asko eta asko topatzen ditugu, ironiaren gradua erdietsi gabe, eremu pertsonalean gehienbat sartzen direnak, zenbaitzuk errazegiak akaso...

Pello Salaburu jatorri apaleko gizasemea da, hark berak kontaktatzen duenez bere liburuan. Horren lotsa ez da, ordea, eta horrek ohoratu egiten du. Profesionalki, bere burua bere kasa egindako gizona da: baserritarra izatetik Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea izatera. Ez dago gaizki, ez horixe. Baina bere bidaia intelektualean ez da bere haurtzaroz, bere landa-bizitzaz, bere Baztan aldeaz ahaztu, eta harropuzkerian

“handiagotu” ordez, baserri batean hazitako bere haur-arimari eta begiradari eusten jarraitzen dio. Esango baligu bezala: “E, kontuz nirekin, gero. Baztandarra naiz eta”. Oso ondo.

Sorterriarekiko harrotasuna erakusten du. Eta baztandarren gorabehera historiko ugari azal gaineratik baina substantzialki deskribatzen dizkiguten hamaika bat pintzelkada han-hemen: borroka historikoak, armariak –etxe bakoitzeko bat–, indianoak, kontrabandoa, emigrazioaren garrantzia baztandarren bizitzan, euskaldunen aztarna Hego Amerikan... (nire emaztearen familiak lotura estua du Baztan aldearekin, batez ere Elizondorekin eta Orozkorekin, non eta oso harro azaldu baitira beti euren sortetxeaz eta, nola ez, euren armariak –sortetxearen buru denaz–).

Euskaldun zintzo legez, Salaburuk bere arbasoen aztarna bilatu eta azpimarratzen du frankotan, euskaldunek mundu zabalean zehar utzitako arrastoa. Herri baten aztarnari jarraitzeko halako ahalegin titaniko bat da –porrot egitera kondenatua (Agirre, Urtsua, Eldorado), zeren, azkenean Afrikan amaituko baikinake –euskaldunok eta gainerako fauna handik baikatoz, antza.

Une jakin batean, Salaburuk aipamen bat egiten du lanbidez kale-garbitzaile aritzen diren poetei buruz. Aipamen hori egitean ez dakit Bilintx ote zuen gogoan edo poesiara “kontsakraturik” nola edo hala bizirauten duten ikasketa akademikorik gabeko poetak ba ote zebilzkion gogoan. Nik hor halako erdeinu bat ikusi uste izan dut, neurri batean bidegabea iruditu zaidana. Alde batetik, denok badakigulako biografiarik onenak nekez topatuko ditugula poeten artean, eta orokorrean, ezta artisten artean ere. Denetik dago. Idazleen eta nobelagileen artean zutik irauten duten biografiak egon badauden bezala (nahiz eta doilorrak eta miserableak ere badauden), poeten artean “porrot”-maila profesional edota pertsonala are handiagoa da. Baina ezin dute ekidin; bestela, ez lirakeke ez poetak ez artistak izango. Merkatariak, irakasleak, saltzaileak, errektoreak... izango lirakeke. Verlaine, Rimbaud, Panero, Bukowsky, Pizarnik... Erraza da artista bat (Van Gogh!!) desorekarantz edo alde “goibelerantz” lerratzea. Ezin dute ekidin. Baina horrela bakarrik lortzen dute direna izatea. Eta, besteak beste, horrengatik miresten ditugu. Esan nahi dut ez dela oso zaila olerkari burokrata horietako bat izatea; zailena, ordea, grinak pizteko gai izatea da (etxean eta etxetik kanpo). Alde horretatik, Salabururi nabaritu egiten zaio baserriar jatorraren sen praktikoari kasu egiten dioten horietakoa dela.

Esan bezala, liburu gustura irakurri dut. Eta batez ere, bertan erabilitako hari gidaria gustatu zait: Peru, eta andetar herrialdeko eta Euskal Herriko unibertsitateen artean lortu beharreko lankidetzak. Hori da nobelaren benetako hari gidaria, eta egileak inoiz ez zukeen ezer egin beharko hari horretatik urruntzeko. Harira ez datozen zenbait digresio badaudelako esaten dut hori, eta horren ondorioz, liburuak zenbait momentutan bere logika galtzen du, sailkagaitza izatearen arrazoiak bat hori bera izanik: ez da narrazioa, ez da nobela, ez da biografia hutsa... Hala eta guztiz ere, niretzat liburu autobiografikoa da gehienbat, eta estilo literario aski dotore batean dago idatzita (une jakin batzuetan “pistoiak” jaisten bada ere). Eta baditu pasarte oso politak, jostagarriak, ironikoak, pertsonalak, gogoetsuak, oso “hemengoak”, e.a. Baina liburuak pasarte batzuk, edo ezabatu beharko zituzkeen, edo bestela, beste modu batez planteatu beharko zituzkeen (hori argialetxe baten zeregina ere bada).

Esaterako, harreman lesbiano bat daukaten bi neskak. Liburuaren bukaera aldera, hainbat orrialde dedikatzen dira harreman hori kontatzeko, nola ezagutu zuten elkar, eta abar. Baina horrek erabat apurtzen du liburuaren estilo narratiboa, eta modu erabat ez-beharrezko batez egiten du. Liburua autobiografikoa da, lehen pertsonan narratuta dago, ez dator harira hirugarren pertsonan kontaturiko narrazio bat tartekatzea, orojakile izatera igarotzen den egile batekin. Pasarte hori albo batera utzi beharko zukeen, liburuari homogeneotasun handiagoa emate aldera. Edo, bestela, gauzak prestatu ahal zituen nesketako batek istorioa kontatu ziezaion, esaterako, Machu Picchu aldean haietako batekin bakarrik geratu zenean. Noski, horrek lan handixeagoa emango ziokeen, pasarte hori liburuan sartzeak alegia. Baina irabazten aterako zen.

Eta oro har, liburu honetaz gaingiroki pentsatzen dudana, hori da. Ez da altu-altu hegan egiten duten lan literario horietako bat; egia esan, literatura-lana baino gehiago, eite autobiografikoko narrazio bat dela esango nuke, baina euskara sendo, jator, nahiko literario eta dotore batean idatzia... Zehaztasun asko eskaintzen ditu, informazio ugari, ukitu eruditua delizioso batekin; nabaritzen zaio ezagutzarekiko gustua, zehaztasunetan galtzeko zaletasuna, euskaldunak gora eta euskaldunak behera beti, hauek (eta bereziki bere baztandar miretsiek) munduan zehar utzitako aztarna pixka bat hobeto ezagutzeko seta jatorra, nahiz eta aztarna hori batzuetan onerako eta beste batzuetan txarrerako izan. Baina horrela da historia. Herri guztien eta pertsona guztien historia.